



## Sektore elektrikoak Euskadin

### Sorkuntza

2011. urtetik aurrera, Euskadin kontsumitzen den elektrizitatearen erdia inguru inportatu egiten da. Azken 10 urteetako batez besteko autohornikuntza-tasa %43,1ekoa izan da. EAEan kontsumitzen den elektrizitate berriztagarriaren ehunekoa zenbatesteko (batez beste, %29 2011-2021 aldirako), kontuan izan behar da Estatuan sortzen den energia elektrikoaren mix-a. Bertako elektrizitatearen %7,3 berriztagarria izan zen 2021ean. Erkidegoan sortutako energiaren gainerakoa ziklo konbinatuetatik eta kogeneraziotik etorri zen, %25 eta %14, hurrenez hurren. Elektrizitatea sortzeko energia berriztagarrien ahalmen instalatua handituz joan da urtero. Energia eolikoa (153 MW), hidraulikoa (173 MW) eta biomasa elektrikoa (110 MW) dute presentzia handiena 2021ean. Energia fotovoltaikoan instalatutako potentzia 2021ean 80 MW-ra iritsi zen.

### Garraioa

2021ean, Euskadiko transformadoreen potentzia osoa 600 MVA igo zen, 5.100 MVA izateraino. Posizioak ere 233tik 239ra igo ziren. Goi-tentsioko elektrizitatea garraiatzeko sareen kilometroak 1.361 km-tan mantendu ziren. Erdi-tentsioko eta behe-tentsioko banaketa-sareei dagokienez, TIEPI eta NIEPI adierazleek erakusten dute hornidura elektrikoaren kalitatea hobetu egin dela 2013tik. Denbora (0,9 orduko etenaldia 2020an) eta mozketakopurua (0,65 etenaldi 2020an) txikiagoak dira urte horretatik aurrera. TIEPI: erdi-tentsioan instalatutako potentziaren etendura-denbora baliokidea. NIEPI: erdi-tentsioan instalatutako potentziaren etendura baliokideen kopurua.

### Kontsumoa

2020an, merkatu arautu kontratatzen duten bezeroen kopuruak (2.X tarifarekin) pisua murriztu du guztizkoarekiko. PVPCan dauden horniduren kopuruak %38tik %23ra gora egin du 2020n (388.158 hornidura). Kontsumoari dagokionez, 2020an kontsumoaren %79 merkatu libretik etorri zen (2.904.220 MWh). 2011-2020 aldian batez besteko kontsumoa 15.176 GWh izan da.

2020an, kontsumoaren arabera, merkaturatzaile handiena Iberdrola (+ Curenergia) izan zen, eta bere atzetik Endesa (+Energia XXI). %38 eta %20ko kuotarekin, hurrenez hurren.

Bezero-kopuruari dagokionez, Iberdrolak (+Curenergia) merkaturatzailearen kuota osoaren %75 gehitu zuen (991.944 bezero). Ondoren, EDP (+BaserCOR) dago, kuotaren %10arekin.

Iturriak: EVE prestatua, REE, CNMC eta MITERDen datuetan oinarrituta